

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA /TÍTULO ASIGNATURA: **PERIODISMO Y COMUNICACIÓN**

Irakasleak/Profesores/as: Dr. D. Daniel García González, Dr. D. Iker Merchán Mota

Irakasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Hedabideek berebiziko garrantzia dute gure egungo gizartean. Eginkizun aktiboa dute errealitate sozialaren eraikuntzan eta demokraziaren zaintzaile gisa jarduten dute, herritarrei informazioa emanez erabakiak informatuta hartu ahal izateko. Kazetaritzaren bitartez bidegabekeriak ezagutarazten dira, boterea zalantzan jartzen da eta eztabaida publikoa sustatzen da, funtsezkoa dena gizarte demokratiko baten funtzionamendu osasungarrirako.

Irakasgai honetan ikusiko duguna zera da, azken urteotan aldaketa teknologiko eta sozialek, digitalizazioak eta sare sozialen ugaritzeak kazetaritza nola eraldatu duten, berehalakoago eta interaktiboago bihurtuz, baina baita erroka garrantzitsuak planteatuz ere, etikari, egiazkotasunari eta hori posible egiten dutenen biziraupen ekonomikoari dagokienez.

Informazioaren aroak hainbat iturritarako sarbidea handitu duela, baina desinformazioa eta albiste faltsuak ere sortu dituela aztertuko dugu, eta horrek kazetaritza zorrotz eta arduratsuari berriz eman dio balioa.

Gaitasunak/Competencias

Irakasgaia amaitu ostean, parte hartzaileek hedabideen funtzionamenduaren, haien prozesuen eta haien adierazteko erabiltzen diren generoen inguruko ikuspegi orokorra lortuko dute. Kazetaritzako ogibidearen baldintzatzaile nagusiak zein diren eta gure inguruan gertatzen dena egunero kontatzeko eta zabaltzeko zeregina egiten duten enpresek gainditu beharreko erroka berriak ulertuko dituzte. Sare sozialen iraultzak izan duen garrantzia eta, algoritmoen bidezko publizitatearen banaketan

paradigma aldaketarekin, horien finantzazio iturri nagusia astindu duen krisia ulertuko dute.

Edukiak/Contenidos

Hedabideetarako sarrera:

Hedabide motak: idatzizko prentsa, irratia, telebista eta Internet.
Kazetaritzaren eginkizuna demokraziaren zaintzaile gisa.
Kazetaritzaren eragina errealitate sozialaren eraikuntzan.

Kazetaritza lanbidearen baldintzatzaileak:

Lanbideari eragiten dioten faktore ekonomikoak, politikoak eta sozialak.

Kazetaritzaren etika eta deontologia.

Kazetaritzaren eraldaketa digitala:

Hedabideak digitalizatzea.
Sare sozialak ugaritzea eta horien eginkizuna.
Kazetaritzaren egungo erronkak:
Egiazkotasun eta etika arazoak aro digitalean.
Hedabideen biziraupen ekonomikoa Interneten garaian.

Sare (komunikabide) sozialen iraultza:

Sare sozialen eragina albisteen hedapenean.
Aldaketak informazioaren kontsumoan.
Informazioaren Aroa:
Askotariko informazio iturrietarako sarbidea.
Informazio ugaritasun handiaren abantailak eta arriskuak.
Desinformazioa eta albiste faltsuak:
Desinformazioaren definizioa eta adibideak.
Albiste faltsuak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko estrategiak.

Hedabideen publizitatea eta finantzaketa:

Hedabideen finantzaketa ereduaren bilakaera.
Algoritmoen eragina publizitatearen banaketan.

Teknologia eta kazetaritza tresna berriak:

Sortzen ari diren teknologien erabilera kazetaritzan.
Tresna digitalak informazioa biltzeko eta egiaztatzeko.
Kazetaritzaren etorkizunerako joerak eta hedadura.
Komunikazio formatu eta plataforma berriak.
Adimen Artifizialaren agerpena

Kasu azterketak eta analisi kritikoa:

Kazetaritzan eragina duten kasu errealeen azterketa.
Gertakari garrantzitsuen estaldura mediatikoari buruzko eztabaida kritikoa.

Metodologia/Metodología

Eskola magistralak, partaidetzazko eztabaidekin osatuta. Parte hartzaileei gogoeta txikiak egiteko eta hurrengo saioaren aurretik idatzita ekartzeko eskatuko zaie noizean behin.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Eskoletara joatea nahitaezkoa da. Bertaratze horrek bermatuko du, ikastegiak ahalbidetzen duen malgutasun tartearekin, irakasgaia gainditzea. Horrez gain, ariketa praktikoren bat edo idatzizko hausnarketaren bat egitea eskatzen den kasu zehatzetan, jarduera txiki horietan parte hartzea ere kontuan hartu ahal izango da amaierako notan.

Bibliografia/Bibliografía

El director: Secretos e intrigas de la prensa narrados por el exdirector

David Jiménez García. Libros del K.O. (2019)

Tim Wu: ***Comerciantes de atención***

La lucha épica por entrar en nuestra cabeza. Ed. Ensayo (2020)

Carlos Salas: ***Manual para Escribir como un Periodista: reportajes, entrevistas, análisis***

Mirada Mágica, 2015

Ryszard Kapuscinski. ***Los cínicos no sirven para este oficio***

Anagrama (2006)

Guillermo Gurrutxaga; Alazne Aiestaran Yaza; José Mari Pastor: ***Claves para la redacción informativa***. UPV/EHU (2023)

Empieza con el porqué: Cómo los grandes líderes motivan a actuar
Simon Sinek. Empresa Activa (2018)

Inteligencia Artificial: El HOSTIÓN que viene
J. M. Romero. Autoedizioa. 2023

Dokumentala: ***'El dilema de las redes' ('The Social Dilemma')***
Netflix, 2020